ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA

PRENTSA OHARRA: 2026.10.11

RTZ Kolektiboak Suns Europe 2026 jaialdiko nazioarteko epaimahaiaren saria irabazi du

- Epaimahaiak Baionako rap taldearen energia, adierazpen indarra eta oholtza gaineko presentzia nabarmendu ditu, baita musikaren bidez gizarte gaiak jorratzeko duen gaitasuna ere

- Europako hizkuntza gutxituetako sorkuntza garaikideari eskainitako jaialdiaren 12. edizioak zazpi hizkuntza komunitatetako artistak bildu ditu Udinen (Italia)

Donostia, 2026ko urriaren 11. – RTZ Kolektiboak irabazi du Suns Europe 2026 jaialdiaren hamabigarren edizioko nazioarteko epaimahaiaren saria. Europako hizkuntza gutxituetako artistak bildu dituen lehiaketaren finala bart, urriaren 10ean, egin zen Udineko (Italia) Teatro Nuovo Giovanni da Udine antzokian.

RTZ Kolektiboa Baionako Zizpa gaztetxearen inguruan sortutako rap taldea da. Oph, Frel eta Petri artistek osatzen dute, DJ Wall ekoizlearekin batera. Urtebeteko etenaren ondoren, *EDEN* diskoarekin itzuli da taldea. Hamasei abestiko lanak paradisuaren eta infernuaren arteko dualtasuna du ardatz, eta rapa beste musika genero batzuetako eraginekin uztartzen du.

Paolo Cantarutti Radio Onde Furlaneko esataria buru izan duen nazioarteko epaimahaiak RTZ Kolektiboaren energia eta adierazpen indarra nabarmendu ditu, baita musikaren bidez gizarte gaiak jorratzeko gaitasuna eta oholtza gaineko presentzia ere.

Publikoaren saria Kataluniako Ölivias taldeak eskuratu du. Hizkuntza gutxituen aldeko lana aitortzen duen *Altre Europe* saria, berriz, Premio Ostana egitasmoari eman diote.

Europako hizkuntza gutxituetako sorkuntzaren topagunea

Suns Europe Europako hizkuntza gutxituetako sorkuntza garaikideari eskainitako jaialdia da, 2009an Friulin sortua. Musikaren, zinemaren eta literaturaren bidez, hizkuntza komunitate desberdinetako artisten arteko topaketak eta trukea sustatzen ditu. Aurtengo edizioa urriaren 2tik 10era egin da, Udinen eta Friuliko beste hainbat herritan.

Aurtengo musika lehiaketan zazpi artista eta talde aritu dira: RTZ Kolektiboa, Momi, Pokriva Nočiva, Zeltia Irevire, Andrea Andrillo, Ölivias eta Gwen. Euskara, friuliera, esloveniera,

galegoa, sardiniera, katalana eta galesera izan dira finalean ordezkatutako hizkuntzak. Abestien letrak friulierara itzulita eskaini zaizkie ikusleei, artisten mezuak hobeto ulertu eta hizkuntza-komunitateen arteko hurbilketa errazteko.

RTZ Kolektiboaz gain, Bilboko ADUR rave-punk bikoteak ere parte hartu du aurtengo edizioan, urriaren 3an eskainitako emanaldiarekin.

Etxepare Euskal Institutuak hainbat urte daramatza Suns Europerekin lankidetzan, euskarazko musikaren eta sorkuntzaren nazioarteko presentzia sustatzeko. Aurreko edizioetan, besteak beste, Verde Prato (2025), MICE eta Niña Coyote eta Chico Tornado (2024), Ødei (2023) eta Olatz Salvador (2022) izan dira jaialdian parte hartu duten euskal artistak.

Suns Europe jaialdia Informazione Friulana kooperatibak antolatzen du, Friuli Venezia Giulia eskualdearen, ARLeF erakundearen, Udineko Udalaren, Etxepare Euskal Institutuaren eta Fondazione Friuliren babesarekin, beste hainbat erakunderekin elkarlanean.

Etxepare Euskal Institutua

Etxepare Euskal Institutua Eusko Jaurlaritzaren erakunde publikoa da. Euskara eta euskal kultura eta sorkuntza nazioartean proiektatzeko, eta horien bidez beste eskualde, herrialde eta kultura batzuekin harreman iraunkorrak eraikitzeko egiten du lan. Horretarako, kalitatezko jarduera artistikoak sustatzen ditu, eta kulturaren alorreko sortzaile, artista eta profesionalen mugikortasuna bultzatzen du. Euskal ikasketak ere bultzatzen ditu eremu akademikoan. Era berean, nazioarteko eragileekin lankidetza sustatzen du, bai kulturaren arloan, bai esparru akademikoan.

Info +

Komunikazio saila
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera | Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus